

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

23. zenbakia**Data 2006-02-03****2790 orria**

6 ELKARTE AUTONOMOKO ADMINISTRAZIOA
EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA, ENPLEGUA
Adineko pertsonentzako Egoitzei buruko lan hitzarmena.

EUSKO JAURLARITZA

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

Harreman Kolektiboak Zk. 396/05-F.1464

ERABAKIA, 2005eko abenduaren 28koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkariena. Honen bidez ebazten da 2005-08rako Gipuzkoako Zaharren Egoitzen hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea zk. 2002435).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2005eko abenduaren 23an aipatutako hitzarmena aurkeztu da, ordezkaritza honetan, ACGG-ADEGI eta LARES-ek, enpresarien ordezkapenean, eta LAB, CC.OO. eta UGT sindikatuek, langileen ordezkapenean, 2005eko benduaren 20an sinaturik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegilea (1995-3-29ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 24.1.g artikulua –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2005-10-27ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*)– dionarekin bat etorritik eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuarekin (1981-4-2ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 22ko 1.040/1981 Errege Dekretuarekin (1981-6-6ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) –hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak– lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmenak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT

Lehenegoa. Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Gipuzkoako Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka, administrazio-bidea amaitzen ez duena, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren aurrean, hilabeteko epean, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 114 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Donostia, 2005eko abenduaren 28a.—Gemma Jauregi Beldarrain, Lurralde Ordezkarria.

(783) (951)

2005-2008 HITZARMEN KOLEKTIBOA GIPUZKOAKO ADINEKOEN EGOITZETARAKO

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. art.Lurralde-eremua.

Hitzarmen kolektibo hau jardute-eremuko enpresa guztietan ezartzeko da, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoan lana egiten duten guztiei ezartzeko ere, enpresak helbidea duen tokia kontuan izan gabe.

2. art.Jardute-eremua.

Hitzarmen kolektibo hau ezarriko da adinekoen arretarako egoitzen sektorean aritzen diren enpresetan eta establezimenduetan, adarretan, negozio-lineetan edo enpresa-ataletan; nola behin betiko hala behin-behineko egonaldiak egiten direnak izan daitezke egoitza horiek. Eguneko zentroetan, zentro sozio-sanitarioetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan ere ezarriko da hitzarmen kolektibo hau.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren eraginetarako, zentro sozio-sanitarioak honakoak izango dira: Mendekotasuna dutenei (adinekoari) arreta eta babesa eskaintzen dizkieten zentro guztiak.

Era berean, hitzarmen honek eragina izango du jardute-eremuan zerbitzua eskaintzen duten adarretan, negozio-lineetan, ataletan edo beste unitate produktibo autonomoetan, baita enpresaren jardura nagusia beste bat baldin bada edo zenbait sektore produktibori dagozkien jardura bat baino gehiago baditu ere.

Hitzarmen hau ezartzeko eremutik kanpo geldituko dira espresuki jardura nagusia berariazko osasun zaintzak edota prestakuntzak egitea duten enpresak. Salbuespen honek, ordea, egoiliarren eta erabiltzaileen osasun laguntzari ez die kalterik egingo, adinagatik edota mendekotasunagatik dituzten arazoei dagokienez. Hitzarmen hau ez da ezarriko, halaber, etxez etxeko laguntza eskaintzen duten enpresetan.

3. art.Langileen eremua.

Hitzarmen kolektibo hau ezarriko zaie 2. artikuluan xedatutako jardute-eremuko enpresa edo establezimenduren batean besteren kontu aritzen diren langile guztiei.

Hitzarmen kolektibo honetatik kanpo geldituko dira zuzenean Administrazio Publikoaren mende egonda zerbitzua eskaintzen duten langileak.

4. art.Denbora eremua. Indarraldia eta salatzea.

Hitzarmen honek indarraldia 2005etik 2008ra artekoa da. Ordainsariei begira, honakoak izango dira ordainsariak: Eranskinetako lansari-tauletan zehaztutako ordainsariak eta soldata errearen gaineko igoera. 2005eko urtarrilaren 1etik jarriko da indarrean. Beste ordainsari osagarrien eta plusen kasuetarako eta bestelako eraginetarako, 2006ko urtarrilaren 1etik jarriko da indarrean.

Bi aldeek adostu dute hitzarmena salatutzat joko dela 2008ko urriaren 15ean, eta hurrengo Hitzarmenerako negoziatio-batzordea osatzeko hitza ematen dute gehienez ere hilabeteko epean. Hitzarmen honen ordezkio hitzarmen berririk sinatzen ez den bitartean, berariaz luzatutzat joko da.

Dena dela, hitzarmen berri baten negoziatioak hasi eta negoziatiozko azken bileraren eta hurrengoaren artean urtebete igaroko balitz negoziatio-batzordeko sindikaturen batek edo enpresa-elkarteren batek inolako ekimenik hasi gabe, hitzarmen honen indarraldia amaitutzat emango da.

5. art. «Ad personam» bermea. Baldintzarik onuragarrienak.

Aurretik zeuden baldintzak errespetatu egingo dira, orokorrean pertsonentzat onuragarriak badira, hitzarmen hau ezarri delako inor kaltetu ez dadin. Baldintza horiek enpresak ezarritakoak dira eta ekonomikoak edo beste mota batekoak izan daitezke.

6. art. Izaera.

Hitzartutako baldintzek oso organiko eta zatiezina osatzen dute eta ezarpen praktikoaren ondorioetarako globalean hartuko dira kontuan, baldintza onuragarriari buruz artikulua dituen eraginak kontuan izanda beti ere.

Lan-jurisdikzioak, lan agintearen aginduz edo kaltetutako edozeinen aginduz hitzarmen kolektibo honetako artikuluren batzuk deuseztatuz gero, horiek eraginik gabe geldituko dira, baina beste artikulua mantendu egingo dira I eta V kapituluetan dagoen artikuluren bat deuseztatu ez bada behintzat, kasu horretan Hitzarmen honetako artikulua guztiak indargabe geldituko dira.

Deuseztatuko testuen bernegoziatioa hasteko negoziatio mahaia bilduko da epaiaren irmotasunetik bi hilabeteko epean.

7. art. Hitzarmenerako batzorde misto parekidea.

Erakunde sinatzaileen artean Batzorde Mistoa sortu da hitzarmen kolektibo hau betetzen dela zaintzeko, arbitraje, adiskidetze eta interpretazio organo gisa. Horko ebazpenak lotesleak izango dira, bileretako aktak egin beharko dira, artxibatu eta hartutako akordioak erregistratu.

Batzorde Mistoa hori osatuko dute enplegu-elkarte eta -erakundeetako 6 kidek eta sindikatuen beste 6 ordezkariak. Sinatu duen organizazio bakoitzak Batzordean gutxienez kide bat izango duela ziurtatuko da, eta horietako bakoitzak sinadura akordioan ondorioztatutako boto proportzio bera izango du Batzordean.

Organizazio bakoitzak pertsona laguntzaile bat izan dezake batzordean, egoki irudituz gero, ahotsa bai baina botorik izango ez duena.

Akordioak baliozkoak izateko, batzordea osatuta dagoela esango da alde bakoitzetik gutxienez ordezkarien %50 etorri bada eta akordioak boto kualifikatu bidez hartuko dira, batzordeko organizazioen ordezkariaren arabera. Akordioak onartuak izateko, beharrezkoa da %50ek onartzea, nola enpresei dagokienez hala sindikatuei dagokienez.

Batzorde Mistoa honen deialdiak bertako presidentek egingo ditu printzipioz, edo hori ezean, edozein alderdik. Erabakiak adierazteko ardura Aktan idazkari izendatutakoak izango du.

Batzorde Mistoaren egoitza, komunikazioetarako eta bilerak egiteko, Gipuzkoako Lan Harremanen Kontseilua izango da: Hondarribia kalea, 6, Donostia.

II. KAPITULUA

SAILKAPENA ETA FUNTZIOAK

8. art. Maila profesionalen definizioa.

Hitzarmen kolektibo hau ezarriko den eremuko langileak, duten titulazioaren arabera eta egiten dituzte lanak kontuan izanda, honako talde eta azpitalde profesionaletan banatuko dira:

A.1) taldea:

—Administratzailea.

—Gerentea.

—Zuzendaria.

A.2) taldea. Goi mailako tituludunak eta aginteak:

—Sendagilea.

—Besteak (psikologoa, etab.).

B) taldea. Erdi mailako tituludunak:

—Gainbegiralea.

—OLT/EUD.

—Gizarte-langilea.

—Fisioterapeuta.

—Lanaren bidezko terapeuta.

—Erdi mailako beste tituludun batzuk.

C) taldea. Langile teknikoak, espezialistak eta erdi mailako aginteak:

—Gobernantea.

—Animazio soziokulturaleko teknikaria.

—Mantentze-lanetako ofiziala.

—Ofizial administraria.

—Gidaria.

—Sukaldaria.

D) taldea. Langile laguntzaileak:

—Gerokultorea/ Erizaintzako laguntzailea.

—Mantentze-laguntzailea.

—Administrari laguntzailea.

—Atezaina-Harreragilea.

—Lorazaina.

E) taldea. Mendeko langileak eta kualifikatu gabeak:

—Garbitzailea - Lisatzailea.

—Sukaldeko laguntzailea.

—Zenbait lanetako laguntzailea.

—Kualifikatu gabeko beste langileak.

Aipaturiko mailak aipamenezkoak dira eta Zentroak bete beharreko baldintza administratiboen erreserbapean, ez dira denak horniturik egon behar, bolumenak, indarrean dauden legezko xedapenek edo zentroaren jardueraren ondoriozko beharrek horrelakorik eskatzen ez badute.

Baina enpresa batean maila jakin bateko definizioan zehaztutako funtzioak betetzen dituen pertsonaren bat dagoen unetik, horren arabera ordainsaria eman beharko zaio, Hitzarmen honen edo indarrean dagoen legediaren arabera tokatzen zaizkion beste eskubideei kalterik egin gabe.

9. art. Maila profesionalen funtzioak.

1. Sendagilea-Sendagile espezialista (geriatra, errehabilitziokoa, etab.):

Pertsona berri bakoitzari mediku-azterketa egin eta dagokion mediku-historia eta ziurtagiri profesionalak bete. Hor adieraziko dira bizitza mota egokienerako azalpenak, behar den errehabilitazioa eta egin beharreko tratamendua, horrelakorik behar izanez gero.

Erabiltzaileen asistentzia-beharrak artatu. Medikuz-azterketak egin, diagnostikoak, kasu bakoitzean tratamendurik egokienak agindu, terapia prebentiboak, asistentzialak eta errehabilitziokoak egiteko zentroko egoiliarren diagnostiko kliniko eta funtzionalen arabera.

Erabiltzaileen mugikortasun eta errehabilitazio programak zuzendu, taldean finkatu banaka eta taldean garatu beharreko programak. Jarraipena egin eta programak ebaluatu parte hartzen duten denek osatutako talde osoarekin batera.

Zentrorra destinatutakoak artatu behar dutenetan eta larrialdi kasuetan.

Sendagileen departamenduko erantzule nagusi gisa, zentroak behar bezala ezin baditu artatu erabiltzaileak ospitale edo osasun-zentro batera bideratu.

Erabiltzaileen gainbegiratze eta jarraipen batzordean parte hartuko du egoiliarren eta eguneko zentrokoen behar asistentzialei eta eguneroko bizitzakoei buruz. Hori lankidetzan egingo du zuzendariarekin, gizarte laguntzailearekin, psikologoarekin eta beste profesionalekin erabiltzaileen egoera fisikoaren, lortu beharreko helburuen eta zentroaren ezaugarrien arabera.

Egoiliarren edo erabiltzaileen menuak eta elikadura dietak programatu eta gainbegiratu.

Langileen lana gainbegiratu.

Zentroko dependentzien sanitate-egoera gainbegiratu.

Oro har, bere titulazioaren eta lanbidearen arabera eskatzen zaion zehaztu gabeko jarduera oro.

2.Goi mailako beste tituludun batzuk:

Titulazioaren eta lanbidearen arabera eskatzen zaion jarduera oro.

3.OLT/EUD:

Egoiliarrek zaindu eta artatu, horien giza eta osasun mailako behar orokorrak, batez ere egoiliarrek OLT/EUDen zerbitzua behar dutenean.

Sendagaiak prestatu eta eman medikuaren esanen arabera, batez ere tratamenduak.

Odol-presioa, pultsua eta tenperatura hartu.

Sendagileekin elkarlanean aritu erabiliko den materiala eta sendagaiak prestatzen.

Historia klinikoak ordenatu, agertu beharreko funtzioarekin zerikusia duten datuak idatzi.

Gaixo egoteagatik ohean dagoen egoiliarra artatu, esanda bezala aldatu posturaz, gaixoen janari zerbitzuak kontrolatu eta jateko instrumentalizatu beharrekoiei (zunda nasogastrikoa, zunda gastrikoa, etab.) zuzenean eman jana.

Egoiliarren higiene pertsonala kontrolatu, baita logeletan dituzten sendagaiak eta janariak ere.

Zentroan lanean ari direnen behar sanitarioak artatu, eskumenekoak baditu.

Fisioterapeutekin elkarlanean aritu jardueretan, horien kalifikazio maila OLT/EUD titulazioarekin bateragarria bada, berriazko funtzioek uzten dietenetan.

Espezialistarik ez dagoen zentroetan, farmaziako, analitikako eta erradiologiako eskariak egin.

Sendagileak emandako jarduera fisikoak zaindu eta egiten dituztela kontuan izan, egiten ari direla izan ditzaketan gorabeherak gogoan hartu.

Orokorrean, aurrez zehaztu ez diren jarduera guztiak eskatzen baldin bazaizkio eta aurrekoekin lotura badute.

4.Gizarte-langilea:

Zentroko gizarte-lana planifikatu eta antolatu helburuak egoki programatuta eta lana arrazionalizatuta. Egoiliarren gizarte alderdiak aztertzeko ikerketak egin eta lankidetzan aritu.

Administrazio-jarduerak burutu eta egoiliarren gizarte-txostenak egin, baita zentroko zuzendaritzak eskatutakoak ere, bertako eta besteen baliabideei buruzko informazioa eman eta egoera pertsonalaren, familiarraren eta sozialaren balorazioa egin.

Gizarte-tratamenduak egin gizarte-zerbitzuen bidez kasu bakoitzean eta taldean egoiliar guztiei.

Egoiliarrak zentroko bizitzan eta beraien inguruan integratzea eta parte hartzea sustatu.

Taldeko lanak eta animazio soziokulturaleko jarduerak koordinatu.

Batzorde teknikoan parte hartu.

Egoiliarrei eragiten dieten gizarte-arazoak konpontzeko behar diren kudeaketak egin, batez ere tokiko erakunde eta elkarteekin.

Talde multiprofesionalarekin edo sendagile departamenduarekin parte hartu egoiliarren orientazioa edo behar duten arreta lantzen.

Gelak eta jangelako mahaiak izendatzen eta aldatzen parte hartu erizaintza departamenduarekin eta zuzendaritzarekin.

Gaixo dauden egoiliarrek bisitatu.

Orokorrean, aurrez zehaztu ez diren jarduera guztiak, eskatzen baldin bazaizkio eta aurrekoekin lotura badute.

5.Fisioterapeuta:

Agindutako errehabilitazio tratamenduak eta teknikak egin.

Eskatzen zaioenean zentroko talde multiprofesionalan parte hartu probak edo balorazioak egiteko, bere espezialitate profesionalarekin zerikusia dutenak.

Egindako tratamenduaren aplikatutakoan jarraipena eta ebaluazioa egin.

Bere espezialitateko tratamendua dagoenean tratamendu hori ezagutu, ebaluatu eta informatu eta, dagokionean, aldatu, besteen baliabideak erabilita.

Bere espezialitateko baliabideak ezagutu lurralde-eremuan.

Zentroan deitutako bilera eta lan-saioretan parte hartu.

Trebakuntza eta informazio programak egiten direnean eragindakoen familientzat eta erakundeentzat, bere eskumeneko gaitan parte hartu programa horiek egitean.

Behar duten profesionalei aholkuak eman mobilizazioen jarraibideei buruz eta fisioterapiako teknikek zeresana duten tratamenduei buruz.

Zentroetan tratamenduak gainbegiratzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko egiten diren saioretara joan.

Orokorrean, aurrez zehaztu ez diren jarduera guztiak, eskatzen baldin bazaizkio eta aurrekoekin lotura badute.

6.Lanaren bidezko terapeuta:

Zentroko jardueren plan orokorrean parte hartu.

Jarduera lagungarriak burutu psikomotrizitatean, hizketan, dinamiketan eta egoiliarren errehabilitazio pertsonal eta profesionalan.

Zentroko egoiliarren errekupeazio edo asistentzia prozesuaren jarraipenean edo ebaluazioan parte hartu.

Zentroko erabiltzaileen aisia eta denbora libreko arloetan parte hartu.

Trebakuntza eta informazio programak egiten direnean eragindakoen familientzat eta erakundeentzat, bere eskumeneko gaitan parte hartu programa horiek egitean.

Orokorrean, aurrez zehaztu ez diren jarduera guztiak, eskatzen baldin bazaizkio eta aurrekoekin lotura badute.

7.Gobernantea:

Jangelako eta officeko zerbitzuak, ikuztegia, arropa zuriak eta garbiketa antolatu, banatu eta koordinatu.

Bere kargura dauden langileen jarduera gainbegiratu, berari izendatuko lagunen jarduerak eta txandak banatu, eta bere kargu dauden materialak, erremintak, tresnak eta makinak ongi erabiltzen direla zaindu, baita horien ekonomia ere; zenbatu eta inbentarioa egin.

Sukaldeko departamenduarekin koordinazioan honakoak ongi ibiltzeaz arduratuko da: Jangela zerbitzua, janari banaketa, erregimenen kontrola, zerbitzu bereziak, muntaia, garbiketa eta zerbitzua kentzea.

Departamenduak egindako eguneko zerbitzu kopurua jakin.

Erizaintzako langileekin koordinazioan eta atxikitako langileak kontuan izanda, egoiliarrek geletan dituzten elikagaiak onak direla kontrolatu.

Zenbait zentrotan jatorduak hirugarrenekin egindako kontzertuen bidez egiten dira, horrelakoetan menuak elkarlanean egin eta dependentzien eta emandako elikagaien egoera sanitarioa gainbegiratu.

Bere kargura daudenek zeregin profesionala betetzen dutela zainduko du, horien higieena eta uniformitatea ere bai.

Garbiketarako kontratua dagoenean, kontratatutako zerbitzuak ongi dabilzala gainbegiratuko du.

Premiazko edo aurreikusi ezindako beharregatik zentroko jarduera normalak eskatuz gero, bere aginduetara dauden langileen jardueretan parte hartu.

8.Jardueren monitorea:

Jarduera soziokulturaletako teknikariek beraien lana hezkuntza arloan egin behar dute, jarduera kulturaletan, sozialetan, hezitzaileetan eta aisiakoetan parte hartuta.

Partehartze kulturalako prozesuak ezagutu, proposatu eta operatibo bihurtu kudeaketa eta heziketa alderdian.

Kultur eta heziketa arloaren eta prozesu sozial eta ekonomikoen arteko harremanak ezarri.

Behar diren baliabideak lortzeko eta prozesu kulturalak abian jartzeko informazio iturriak eta prozesuak eskura izan.

Partehartze kulturalako estrategiak diseinatzerakoan eta inplementatzerakoan zenbait kualifikaziotako profesionalekin koordinazioa izan.

Zenbait proiektu eta programa burutu eta aurrekontuak egin, baita txosten eta ebaluazio egokiak ere.

Berriazko programak eta proiektuak egin.

Erabiltzaileen osoko garapena sustatu jarduera ludiko-hezitzailearen bidez.

Zenbait animazio teknika garatu eta burutu, banaka edota taldeka, erabiltzaileek beraien denbora librean erabili ahal izateko eta teknika horien bidez erabiltzaileak taldean sartu eta garatzeko.

Egoiliarak sustatu parte hartzeak duen garrantziaz integrazteko eta inguruarekin harreman positiboa izateko.

Gertatzen den edozein gorabeheratan erantzukizuna, norberaren edo animatzaile soziokulturalenetan edozein motatako lanetan.

Aldizkako bilerak taldeko besteekin, baita animazio soziokulturala duten beste zentroetako arduradunekin ere.

Boluntarioak eta praktikak egiten ari diren animazio soziokulturaleko ikasleak koordinatu.

Maila profesional honekin zerikusia duten irakaskuntza, hitzaldiak eta ponentziak.

Zenbait zentroyen jardueren plan orokorrean eta aurrekontuetan parte hartu.

Animazio soziokulturaleko lantaldeak, jarduerak eta aurrekontuak koordinatu.

Bere funtzioen garapenean ikusitako gorabeherak edo anomaliak jakinarazi nagusi hurrenari.

Orokorrean, aurrez zehaztu ez diren jarduera guztiak, aurrekoekin lotura badute.

9.Mantentze-lanetako ofiziala:

Zentroko instalazio guztiak ustiatzekoa eta mantentzeko arduradun zuzena da; egin beharreko lana programatzen du, berak zuzenean egiten du eta zerbitzu teknikoetako laguntzaileei agintzen die egiteko.

Instalazio batzuen mantentze-lanetarako enpresaren bat baldin badago kontratatuta, horien ikustaldiak eta egindako lana kontrolatu.

Instalazioen erregelamenduetan edo garatzen dituzten jarraibide teknikoetan definitutako arauzko eragiketak egin, eta parametro desberdinei dagozkien balioak eskatutako muga barruan mantendu.

Mantentze-planak egin berariaz legez definitzen ez diren ofizioenak.

Mantentze-liburuak, erabilera-eskuliburuak, bisita-liburuak gorde eta zaindu indarrean dagoen legediak ezarrita baldin badaude edo etorkizunean ezar daitezkeenak baldin badira. Instalazioetan egindako eragiketak idatzi eta zentrokoak ez diren enpresek egindakoak gainbegiratu.

Makina-gela, instalazioak, koadro elektrikoa, transformadoreak, tailerra eta bereak ez diren beste materialak zaindu.

Zentroko jarduerak behar bezala burutzeko behar diren oholtzak, eszenatokiak, eserlekuak, zine proiektoreak, bozgorailuak, etab. muntatzearen, funtzionatzearen eta desmuntatzearen kontrola izan.

Zerbitzu teknikoetako ofizialek adierazi dituzten funtzio guztiak egin, eta departamendu horretako arduradun gisa, erantzukizun zuzena izan egindako lanena eta horiek banatzearena, enpresak emandako aginduak bete eta burutzearena, atal bakoitzeko buruen matxura-partek jasotzearena.

Kontuan izan bere kargu dituen langileek jarduera profesionala erregulartasunez betetzen dutela eta zuzendaritzari adierazi ikusitako akatsak.

Bere karguan ahalik eta erraztasun handienak eman heziketa profesional ona izateko.

10.Ofizial administraria:

Langile hau zentroko zuzendarien aginduetara aritzen da eta zerbitzu jakina du bere kargu; zerbitzu horretan ekimena eta erantzukizuna ditu, bere agindura beste langile batzuk izan ditzake edo ez, eta ber kalkulak, azterketak, prestaketak eta baldintza egokiak egin behar izaten ditu, hala nola, estatistika kalkulak, kontu korronteen liburuak transkribatu, eskutitzak idatzi bere ekimenez, soldaten nominak likidatu eta kalkulatu, soldatak eta antzeko eragiketak, eskuz edo mekanizatuta.

Maila honetan sartuta jotzen dira sinadurarik gabeko ordainketa eta kobrantza kutxazainak dirua erabiltzeagatiko kalte-ordain plusa jasotzen dutenak.

Orokorrean, aurrez zehaztu ez diren jarduera guztiak, eskatzen baldin bazaizkio eta aurrekoekin lotura badute.

11.Gidaria:

Bere espezialitateko lanak egin beharko ditu, zentroen zerbitzura dauden ibilgailuei dagokienez eta tailerreko elementurik behar ez duten konponketak ere egin beharko ditu.

12.Gerokultorea/ Erizain lag.:

Langile hauek zentroko zuzendaritzaren edo zehaztutako pertsona baten mende egoten dira. Beraien zeregina da egoitzako erabiltzaileei laguntzea eguneroko bizitzako gauzak egiten, erabiltzaileek beraien kabuz ezin badituzte egin gai ez direlako, arreta pertsonalera eta ingurura bideratutako lanak ere egingo dituzte. Besteak beste:

a)Erabiltzailearen garbitasun pertsonala.

b)Egoitzetako plan funtzionalaren arabera, egoiliarraren tresneria garbitu eta mantendu beharko du, oheak egin, arropa jaso, ikuztegiara eramane eta logeletako mantentze-lanetan parte hartu.

c)Jaten eman beraien kabuz jan ezin duten erabiltzaileei. Zentzu horretan, erabiltzaileentzako janaria jaso eta banatzeaz ere arduratuko da.

d)Posturaz aldatu beharko ditu eta bestelako laguntza-zerbitzuak ere egin beharko ditu, bere prestakuntza teknikoarekin bat baldin badatoz eta egiteko agindu bazaio.

e)Erabiltzaileen osasunean izandako gorabeheren berri eman beharko du.

Botikineko altzariak, materialak eta tresnak garbitu eta prestatu.

Erabiltzaileari lagunduko dio irteeretan, itzulietan, ibilaldietan, jokoetan eta denbora librean oro har.

Profesionalen taldearekin lankidetzan arituko da oinarrizko lanak egiten, profesional horien zerbitzuak osatuko ditu, egoiliarrari autonomia pertsonala eman eta gizarteratu dadin.

Egoiliarrarekin egingo diren jarduera edo harreman guztietan dagozkien profesionalak eskaintako lan asistentziala, hezitzailea eta prestakuntzazkoa osatzen saiatuko da.

Profesional batzuen mende egongo da zuzenean, eta horiekin koordinazioan eta horien ardurapean arituko da.

Ez du egoiliarren prozesu patologikoei buruzko ezer esango, ezta horien intimitateari buruzko ezer ere.

Orokorrean, aurrez zehaztu ez diren jarduera guztiak, eskatzen baldin bazaizkio, bere ogibidean eta prestaketa teknikoan sartuta baldin badaude eta aurrekoekin lotura badute.

13.Sukaldaria:

Departamentuko erantzule gisa, sukaldeko langile guztiak antolatzeaz, banatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da, baita jatorduak egin eta gozatzeaz ere, menuaren eta elikadura erregimenen arabera. Menua zentroko zuzendaritzari proposatuko dio onar dezan eta sendagile departamenduak gainbegiratuko du.

Egunero komunikatu zaizkion ohiko zerbitzuak, bereziak eta apartekoak gainbegiratuko ditu.

Sukaldeko langileen artean beteko dituzte egindako menuekin karroak.

Egunero zainduko du despentsa, horko artikuluak biltegira hornitzeaz arduratuko da, despentsaren egoera zainduko du, eta egin behar dituen zerbitzuen arabera behar dituen gauzak ateratzeaz arduratuko da.

Izakinak birzenbatuko ditu egoitzetako administratzaileekin batera, ikusitako gabezien berri emango dio zuzendaritzari eta bere kargu dauden langileen eginbehar profesionalak betetzen dituztela kontuan izango du eta horien higieena zainduko, baita uniformearekin joatea ere.

Zehaztu ez arren bere laneko tokiarekin eta kualifikazio profesionalarekin bat datozen funtzio denak egin.

Departamenduko berezko makinaren eta tresnen mantentzea gainbegiratuko du, behar bezain garbi eta funtzionatzen egon daitezen, besteak beste: Erretiluak, labeak, frijiontzia, erauzgailua, iragazkiak, moztekoak lapikoak, etab.

14.Mantentzeko laguntzailea:

Langile honek zuzenean edo laguntzaileekin egiten ditu zentroko, instalazioetako eta kanpoaldeko ustiaketa eta mantentze lanak; instalazio mota guztiak muntatu, doitu eta puntuan jartzen ditu, tenperatura erregulatzen eta kontrolatzen du modu sinplean edo automatikoan, emariak, beroa, uraren aztertze maila eta antzekoak aurreikusten ditu, etab.

Instalazioak edo eraikina mantentzeko behar diren paleta, plantxisteria, pintura, arotz lanak egiten ditu.

Makinak edo instalazioak aldizka begiratzen ditu, beraien arauetan edo jarraibide teknikoetan adierazi bezala, arau edo jarraibide horietan aipatzen diren balioak baimendutako mugen barruan egon daitezen.

Makina-gelak, instalazioak, koadro elektrikoak, transformadoreak, tailerra, etab. garbitzen ditu.

Zentroko jarduerak behar bezala burutzeko behar diren tronadurak, oholtzak, eszenatokiak, eserlekuak muntatzen ditu eta bozgorailuak, musika-ekipoak, proiektzioak, etab. puntuan jarri.

Eragiketa txikiak egiten ditu aipatutako instalazioen dispositiboetan eta tresneriatzat jotako tresna garraiarrietan.

Konpondutako tresna bakoitzaren lan-komunikatuak eta errebisio- edo egiaztatze-fitxak betetzen ditu, zerbitzua behar bezala ibil dadin.

15.Administrari-laguntzailea:

Langile honek ekimena eta erantzukizuna mugatuta ditu eta zentroko zuzendaritza organoen mende dago. Mekanografia lanak, artxibatzeak eta administrazio-teknikako bestelako jarduerak egiten ditu.

Orokorrean, aurrez zehaztu ez diren jarduera guztiak, eskatzen baldin bazaizkio eta aurrekoekin lotura badute.

16.Atezaina/Harreragilea:

Langile honen zereginak dira, korrespondentzia jaso eta bidaltzea, etorritakoak bideratzea, noizik eta behin telefonoko zentralitan egotea, sarbide puntuak zaintzea eta atezain lanak egitea.

Batzuetan langileekin aritzen da pisu handiagatik langileek bakarrik egin ezin dituzten lanetan.

Egoiliarren irteera eta sarrera parteak betetzen ditu, baimena dutelako edo oporregatik egiten badira.

Egoiliarren irteera eskariak edo atzerapenak artxibatuko ditu, egoitzako barne arautegian adierazten den arabera.

Behar duten egoiliarrei laguntzen die gelatik eta gelara ekipaia eramaten, zentrorra datozen pertsonak dakartzaten paketeak kontrolatuko ditu nahitaez eta modu diskretuan, baita langileen sarrerak eta irteerak ere.

Zuzendaritzak ezarritako erregimena mantentzen du egoiliarrak eta bisitariak erakundeko dependentzietara sartzeko.

Aberia-parteen kargu egiten da eta mantentze-zerbitzura igortzen ditu.

Bere kargu dago egoiliarrak batetik bestera eramatea erakundearen barruan eta autobusera, anbulantziara eramane behar direnean.

17.Garbitzailea-lizaintzailea:

Bere lana gobernantearen edo zuzendaritzaren zuzeneko aginduen arabera egiten du.

Honako funtzioak bete beharko ditu:

a)Jangela-officeko berezko lanak egin, eta arreta berezia izan beharko du bere kargu utzitako materiala erabiltzean.

b)Ikuztegiko eta arropa zurien lanak egin, makinak erabili eta zaindu, egoiliarren eta zentroko arropa zaindu, eta materialak ahalik eta egokien erabili.

c)Logeletako eta denek erabiltzen dituzten tokietako berezko garbiketa lanak egin (oheak egin, aldatu, bainugelak, leiho eta balkoiak, altzariak, etab.) egoiliarrei ahalik eta enbarazu gutxien eginda.

d)Nagusia hurrenari adierazi bere lanean izandako gorabeherak edo anomaliak (matxurak, narriadurak, ageriko desordena, egoera txarreko janariak, etab.).

18.Sukaldeko laguntzailea:

Sukaldariaren aginduetara prestatuko ditu elikagaiak gozatzeko, labeak eta suak piztu eta mantenduko ditu, baita sukaldeko eta jangelako tresnak garbitu ere.

19.Zenbait lanetako laguntzailea:

Beste profesional batzuen mende aritzen dena da, bere prestakuntza profesionala eskuratuko du eta ahalik eta gehien saiatuko da agindutako lanetan.

Zentroko makinak eta tresneria garbi eta funtzionatzen mantenduko ditu.

20.Kualifikatu gabeko beste langileak:

Oinarrizko lanez arduratuko dira, beraien mailei dagozkienak baina kualifikazio berezirik behar ez dutenak.

Funtsezko zeregina indar fisikoa ematea izango da, adibidez: Zaborrak bildu eta kalean dauden edukiontzietara bota, tresnak batetik bestera eraman, etab.

Desadostasunak egonez gero, lehen instantzian Hitzarmen Kolektiboko Batzorde Mistoaren eskumena izango da horri buruz ebaztea, eta akordiorik ezean, aldeek dagozkien instantzietara jo ahal izango dute.

III. KAPITULUA

ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA

10. art. Kontratu-motak.

Kontratu mugagabea: Zerbitzua eskaintzeko denbora-mugarik ezartzen ez duena. Honakoak izango dira langile mugagabeak: Mota bateko edo besteko kontratua izanda ere, Gizarte Segurantzaren alta eman ez zaienak proba garairako legez finkatutako epea iragandakoan eta aldi baterako kontratua dutenak lege-iruzurreko kontratua egin badute.

Merkatuko gorabehereri erantzuteko egindako kontratu ebentualak: Lanak pilatu, eskari gehiegi, denak Langileen Estatutu Legearen Testu Bategineko 15.1.b) artikuluan aurreikusitakoak (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako ED). Gehienez ere hamabi hilabete iraungo dute, hemezortzi hilabeteko epean, zergati horiek gertatutako unetik kontatzen hasita. Baimendutako gehieneko epea baino denbora gutxiagorako eginez gero, behin bakarrik luzatu ahal izango da eta osora egindako denbora ezingo da gehieneko epea baino handiagoa izan.

Praktikaldiko kontratuak: Ez dira hamabi hilabete baino gutxiagokoak izango, sei hilabetez luzatu ahal izango dira legeak agindutako gehieneko epera arte. Kontratu horien ordainsariak, gutxienez honakoak izango dira: Mota honetara kontratatutako mailen %80 lehenbiziko urtean eta %90 bigarrenean. Praktikaldiko kontratudunak ezingo dira plantillaren %5a baino gehiago izan.

Prestakuntzako kontratuak: Ez dira hamabi hilabete baino gutxiagokoak izango, sei hilabetez luzatu ahal izango dira legeak agindutako gehieneko epera arte. Kontratu horien ordainsariak, gutxienez honakoak izango dira: Kontratu diren prestakuntza mailaren %80 lehenbiziko urtean eta %90 hurrengo beste bietan, eta ezingo da inondik inora legeak ezarritakoa baino gutxiago izan. Ezingo zaie hogeitertietatik gorakoei egin eta prestakuntzako kontratuak dituztenak ezingo dira plantillaren %5 baino gehiago izan.

Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratua: Kontratu honen babesean kontratatutako zerbitzuak zehatzak eta jakinak izango dira, eta lan-harremanaren gaia eta zergatia hartuko ditu bere baitan, hau da, zerbitzu zehatzak eta denboran edo tokian erraz zehatz daitezkeenak, nahiz eta epea ziur jakin ez. Burututakoan prestazioa, obra edo zerbitzua ere amaitu egingo dira. Kontratu mota hori ezarri ahal izango zaie zerbitzu-enpresei hitzarmen honen ezarpen-eremuan egon eta adinekoentzako zuzeneko laguntza-zerbitzuak enpresaburu nagusi baten bidez kudeatzen badituzte.

Lan-harremana indarrean egongo da, lan-zentroari edo enpresa nagusiari atxikita, kontratu-harremana ezarri zen jarduera edo zerbitzua eskaintzen den bitartean, kudeatzen duen enpresa dela delakoa izanda ere. Ez da kontratu eredu hori erabiliko egiturazko hutsuneak betetzeko, ezta bitarteko kontratuen kasuan ere.

Lanaldi partzialeko kontratua: Kontratua idatziz formalizatu beharko da nahitaez eta asteko, hileko edo urteko lanorduak eta horien banaketa agertu beharko dira bertan.

Errelebo-kontratua: Errelebo-kontratua egin ahal izango zaie langabezia daudenei edo enpresarekin luzapen jakineko kontratua hitzartuta dutenei, partzialki erretiratzen diren langileak partzialki ordezkatzeko.

Zuzendaritzak legezko ordezkariari jakinaraziko eta emango dio erreleboa egingo duenari buruzko informazio eta dokumentazio guztia partzialki erretiratu aurretik.

Laneratzeko kontratua: Irabaz asmorik gabeko erakundeek laneratzeko kontratuak egin ahal izango dituzte enplegu bulegoan izena emandako langileekin, aldi bateko kontratu horren gaia denen edo gizartearen intereseko lan edo zerbitzu bat egitea baldin bada; lan esperientzia lortzeko eta langabetu partehartzailearen okupabilitatea hobetzeko bitarteko gisa erabiliko litzateke, arauz zehaztutako programa publikoen eremuan.

Honela kontratatuko langileei hitzarmen honetan jarritako baldintzak ezarriko zaizkie.

11. art. Enplegu-egonkortasuna.

Kontratazio mugagabea sustatzeko eta indarrean dauden kontratuei egonkortasun handiagoa emateko, hitzarmen honek eragina duen enpresa guztietarako adostu da 2006ko abenduaren 31rako langileen %75 kontratu mugagabeekin izatea eta 2007ko abenduaren 31rako langileen %85. Enpresa sortu berrien kasuan, jarduera hasi eta lehenbiziko urtean %75 eta %85 bigarreanean. Kontratu mugagabeekiko langileen kontzeptua honakoak zehaztuko ditu: Eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan ongi funtzionatzeko behar den ordu kopuruak.

Beraz, hitzarmen honetan aurreikusitako edozein motatan egingo liratekeen aldi baterako kontratuen gehieneko ehunekoak lortzeko, plantillaren %100i aurreko paragrafoan ezarritako kontratu mugagabeen konpromisoak kenduko zaizkio, praktikaldiko, prestakuntzako, ordezkotzako eta errelebo kontratua dutenak izan ezik, baita 10. artikuluan aipatzen diren lan edo zerbitzu jakin baterakoak ere.

12. art. Enplegu-batzorde iraunkorra.

Kontratazioaren eboluzioa aztertzeko eta lanegunak egonkortu eta normalizatzeko uniformetasun eta erregularutasun irizpideak erabilita, batzorde iraunkor bat sortuko da hitzarmena aldatzeko gaitasuna duena eta eboluzio hori enplegu-egonkortasunera bideratuko duena.

Sektorea gero eta gehiago eta hobeto ezagutzeko eta bertako egoera, sortzen den enplegu kopurua eta kalitatea, eremu funtzionalean zerbitzuak eskaintzen dituztenen kualifikazioak gero eta gehiago eta hobeto ezagutzeko eta hitzarmen honetako 11. artikulua betetzen den jakiteko, batzorde iraunkorra sortuko da hitzarmen kolektiboa sinatu duten erakundeetako ordezkariak osatua. Batzordea gutxienez sei hilean behin bilduko da eta sektoreko enpleguaren eta kualifikazioen eboluzioaren txostenak egingo ditu.

13. art. Lanpostu hutsak, berriak, sustapena eta igoerak.

Enpresetako lanpostu hutsak edo sortu berriak betetzeko (A taldea izan ezik) aurrez kontuan izango da zentro bereko langileek bete ote dezaketen lanpostu hori beti ere behar diren ezaugarriak edo profila izanez gero.

14. art. Beheragoko eta goragoko mailako lanak.

Ezingo dira langileak beheragoko mailako lana egitera bidali, ohikoa balitz bezala.

9. artikuluan zehaztutako funtzioen helburua da zereginak izendatzea hitzarmen kolektibo honen alorrean sartutako enpresetan zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionali. Profesional horiek salbuetsita daude beraien maila eta talde profesionalari ez dagozkion funtzioak egitetik, eta bereziki bereizten dira erabat asistentzialak (sendagilea, gainbegiralea, OLT, gizarte-langilea, lanaren bidezko terapeuta, fisioterapeuta, gobernanta, animazio soziokulturaleko teknikaria, gerokultorea), administraziokoak (administrari lag., ofizial administraria), zuzendaritzakoak (administratzailea, gerentea, zuzendaria) eta Mantentzekoak eta Ofizioak (Gidaria, lorazaina, mantentze-lanetako lag., sukaldaria, atezain/harreragilea, garbitzailea, sukaldeko laguntzailea, langile kualifikatu gabeak).

Goragoko mailako lanen bat egiteko esandakoan langileei, urtebetean lau hilabete baino gehiagoz edo bi urtean sei hilabete baino gehiagoz, gora igotzeko eska dezake postuak eskatzen duen eta dagokion titulazioa baldin badu. Dena dela, izendatutako mailaren eta egiten duen lanaren arteko ordainsariaren aldea jasoko luke.

15. art. Probaldia.

Probaldia ezartzen da, baina ezingo da inondik inora kontratuaren iraupenaren hiruren bat baino handiagoa izan, Langileen Estatutuan araututakoaren arabera:

A taldearentzat: Sei hilabete.

B taldearentzat: Berrogei eta bost lanegun.

C taldearentzat: Hogeita hamar lanegun.

D taldearentzat: Hogei lanegun.

E taldearentzat: Hamalau lanegun.

Probaldia idatziz hitzartu beharko da eta indarrean dagoen bitartean parte kontratugileek beren kasa eta askatasun osoz ebatzi ahal dezakete lan-harremana aurrez oharrik eman gabe eta inolako kalte-ordainik izateko eskubiderik gabe.

16. art.Lan-uzteak enpresan.

Enpresako zerbitzua borondatez utzi nahi duten langileek, enpresari jakinarazi beharko diote honako aurreabisu-aldiak beteta:

a)Laguntzaileak eta kualifikatu gabeak: Hamabost egun.

b)Beste langileek: Hilabetea.

IV. KAPITULUA

LANALDIA, ATSEDENAK ETA JAIK, OPORRAK ETA APARTEKO ZERBITZUAK

17. art.Lan-denbora.

Lanaldiak asteko batez beste 35 ordu izateko joera izango du benetako lanean, hau da, urtean 1.592 ordu. Horretarako, laneko zentro bakoitzean formula hau ezarriko da urtean lanaldia murrizteko finkatutako helburura iritsi arte:

(2005ean zentro bakoitzean izandako urteko benetako lanaldia) ken (1.592 ordu) zati hiru. Horren emaitzak esango digu urtero zenbat ordu murriztu behar den lanaldia 2006an, 2007an eta 2008an.

Lanegun normalaren edo ohikoaren iraupenari dagokionez, ez dira kontuan izango ezbeharrak eta bestelako aparteko kalteak eta larrialdiak aurreikusteko edo konpontzeko sartutako orduak.

Lanaldi partzialen kasuan, lanaldia murrizteak (eragindako pertsonak aurkakorik eskatu ezean) esan nahiko du urteko lanaldiaren ehunekoia igo egiten dela.

Lanaldia etengabea denean 20 minutuko atsedena egongo da, eta ez da benetako lan denboratzat joko. Dena dela, mantendu egingo dira enpresa eta langileen ordezkariak adostuz gero, 20 minutukoak ez diren atsedanak (gehiago edo gutxiago), eta ez dira horiek ere benetako lan denboratzat joko.

18. art.Lan-egutegia.

Lan-ordutegia eta lan-egutegiak finkatzea enpresako Zuzendaritzaren lana izango da soilik.

Urteko lanaldiaren banaketa lan-karteldegian jasoko da eta erregularitasun irizpideekin egingo. Bertan urte osoko lanaldiak, atsedenaldiak, oporrak, etab. agertuko dira, eta ezarritako gehiengo lanaldira egokituko da.

Horretarako behin-behineko karteldegi bat egingo da aurreko urteko abendua eta arautu beharreko urteko urtarrilaren artean, eta urte horretako martxoaren 31 baino lehen argitaratuko da behin betiko karteldegia bakoitzaren oporraldiarekin.

Urteko lan-karteldegia egiteko, langileen ordezkariak eskuratutako txostena izango da kontuan eta, beraz, enpresak ezarri beharko ditu hori eraginkor egiteko behar diren komunikazio-bideak.

19. art. Gutxieneko atsedena.

Lanaren antolakuntza erregimena dena delakoa izanda ere, lanegun bat amaitu eta bestea hasi bitartean gutxienez hamabi ordu igaroko dira.

Langileek astean etenik gabe egun eta erdiko (36 orduko) gutxieneko atsedena izateko eskubidea dute. Atsedena hori nahitaez igandean izango da gutxienez bost astean behin, asteburuetako berariazko kontratua duten langileek izan ezik.

Hori horrela bada ere, formula oro errespetatuko da enpresaren eta langileen ordezkarien artean hitzartu bada edo hitzartzen bada, edo, hitzarmenik ezean, langileekin beraiekin egin bada.

20. art. Lanaldi partzialeko lana.

Gerokultoreentzat eta garbitzaileentzat orokorrean, lanaldi partzialak gutxienez urteko edo asteko hitzartutako lanaldiaren %60 izango dira. Arau orokor horretatik kanpo daude maila horientzat egiten diren kontratuak eguneko zentroetan, tutoretzapeko pisuetan edo 30 egoiliar baino gutxiagoko egoitzetan.

Lanaldi partzialak jarraituak izango dira; larunbat, igande, jai egun eta egun berezietakoak -gehienez ere bi zatitan bana daitezke- eta langileak eta Zuzendaritza ados jarri eta ezartzen diren haiek izan ezik.

Dena dela, eta antolakuntza aldetik ahal izanez gero, enpresak kontratazio berri bat egin aurretik, luzatu egingo du hitzarmen honetan hitzartutako asteko edo urteko lanaldira arte.

21. art. Oporrak.

Urteko oporrak ordaindu egingo dira eta urtean hogeita hamaika egun natural edo 26 lanegun izango dira, eta ezingo dira, aldeak adostu ezean, bi aldi baino gehiagotan hartu. Benetako lan-urtea osatu ez den kasuetan, langileek dagokien zatiaz gozatzeko eskubidea izango dute. Enpresek egutegia egitean, gutxienez oporretako hamabost egun ekaina eta iraila artean izaten saiatuko dira.

Oporrak finkatutakoan, oporrak hasi baino lehen langileak lan-istripuren bat izan eta baja hartu beharko balu, oporrak alta hartutakoan egingo lituzke, beste data batean.

Oporrak urte naturalaren barruan hartu behar dira, eta ezin dira hurrengo urterako pilatu, ezta ekonomikoki konpentsatu ere lan-harremaneko azken kitatze kasuetan izan ezik. Horregatik, arrazoia edozein dela ere, urte naturalean ez hartzeak oporrak edo dagokion oporren zatikia galtzen ekarriko du.

22. art. Gauez lana egitea.

Gauez edo gaueko txandan lan egiten dela esango da gaueko hamarrak (22:00) eta goizeko zortziak (08:00) bitartean egiten denean.

23. art. Igande eta jaiegunetako lana.

Igande edo jaiegunetan lana egiten dela esango da bezpera gaueko 22etatik igande edo jaieguneko 22ak arte egiten bada.

24. art. Ordu estrak.

Ez dago ordu estrarik egiteko aukerarik, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

V. KAPITULUA
ORDAINSARIAK

25. art. Ordaintzeko modua eta soldata jasotzea.

Langileek beraiek aukeratutako banketxe edo aurrezki-kutxetako kontu edo libretetan helbidera ditzakete nominak.

Hileko ordainsaria amaitutako hilen arabera egingo da eta hurrengo hileko laugarren eguna baino lehenago.

26. art. Lansarien egitura. Soldata-kontzeptuak. Osagarriak.

A) Oinarrizko soldata: Langileen ordainsaria hiru denbora unitateko ezartzen da eta bakoitzaren talde eta maila profesionalaren arabera, berariazko lanpostuagatik edo beste gorabeheraren batengatik tokatzen den ordainsariaz aparte.

Urteko oinarrizko soldata 14 ordainketatan emango da honela banatuta: 11 hileko oinarrizko soldatari dagozkionak, 1 oporrena eta 2 aparteko ordainsariei dagozkienak.

Likidazioari dagokiolarik, hileko oinarrizko soldataren orduko balioa, aparteko ordainsaria eta oporrik gabea, honakoek zehaztuko dute: Hileko oinarrizko soldata bider 11 zati hitzartutako urteko lanaldia.

B) Antzinasun plusa:

Antzinasunaren arabera osagarria dela eta, hilean 18,03 euro emango dira maila guztietan enpresan egindako hiru urteko aldi bakoitzeko osagarri pertsonal gisa. Lehenbiziko kontratua eta ondorengoak egin zirenetik hasiko da kontatzen, langilea enpresarekin modu jarraituan lotzen badute behintzat, kontratu mota dena delakoa izanda ere. Hirurteko bakoitzaren zenbateko aldia bete eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik hasiko da jasotzen eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ez du inolako igoerarik izango. Kontuan hartuko dira beti oporraldiak, ordaindutako baimenak, behin-behineko ezgaitasuna, amatasunagatiko eszedentzia berezia eta nahitaezko eszedentzia.

Lan egiten duten enpresetan edo laneko zentroetan hemen aipatutakoa ez bezalako antzinasun plusa duten langileek, hirurtekoa amaitutakoan finkatuko dute, 2006ko urtarrilaren 1era arte lan egindako epearekiko proportzioan eta zentro bakoitzean ezarritako kopuruen arabera eta egun horretatik aurrera Hitzarmen honekin batera doan soldaten taulan ezarritakoaren arabera.

C) Aparteko ordainsariak: Aparteko bi ordainsari emango dira, sei hileko sortzapenarekin, hileko oinarrizko soldata gehi antzinasuna emango da kasu bakoitzean. Lehenbizikoa urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko sortzapenarekin, uztailaren 15ean ordainduko da eta bigarrenak uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko sortzapenarekin, abenduaren 15ean ordainduko da.

Urtean zehar lana utzi edo lanean hasten direnei, lehen aipaturiko hilabetetik gorako muga-egunaren osagarriak ordainduko zaizkie, horien zenbatekoa zerbitzualdiaren heinean hainbanatzen dela, sei hilabeteka.

Enpresako titularra eta langileen legezko ordezkariak ados jarriz gero, aparteko bi ordainsariak 12 hileko sarien

artean hainbanatzea erabaki dezakete.

D)Gaueko lanaren plusa: Langile guztiek, gaueko lanak egiteko berariaz kontratatutakoek izan ezik, gaueko lanagatik osagarri bat jasoko dute egun bateko gaueko hamarretatik hurrengo eguneko goizeko zortziak arte lanean aritutakoan. Lana egindako gaueko ordu bakoitzeko plusa III. Eranskineko Soldaten Taulan ezarritakoa izango da.

Gaueko lanak egiteko berariaz kontratatutako langileek ordainsari osagarri bat izango dute lana egindako gaueko ordu bakoitzeko, soldaten taulan gaueko ordu bakoitzeko ezarritako osagarriaren balioaren %50ekoa.

E)Jaiegun eta igandeetako plusa: Urte natural batean dauden ordaindutako jaiegun berreskura ezinetan lanean arituz gero eta dagokien atsedeen eguna beste egun batean edukiz gero, ekonomikoki konpentsatuko dira, lan egindako ordu bakoitzeko II. Eranskineko Soldaten Taulan ezarritakoaren arabera. Era berean, berdin konpentsatuko dira igandean tokatzen diren lanegunak.

Esanahi berezia dutelako, jaiegun berezizat joko dira Eguberri eta Urteberri Egunak. Abenduaren 24tik 25erako gaueko txanda hasi eta abenduaren 25eko arratsaldeko txanda amaitu arte eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1erako gaueko txandaren hasieratik urtarrilaren 1eko arratsaldeko txanda amaitu arte lana egiten dutenei, II. eta III. Eranskinetako Soldaten Taulan jaiegun eta igandeetarako ezarritako balioaren hirukoitza emango zaie.

G)Dietak eta joan-etorrietako gastuak: Dieta hauxe da: Irteera mota ororen ondoriozko egonaldiek eta mantenuak dakartzaten gastuak betetzeko egunero ezarritako diru kopurua; beti ere, gastuak langilearen kontu baldin badira eta langilea titularrak bidalita edo titularrak langilearen proposamena onartuta joan bada. 2006rako dietak honakoak izango dira:

Gosaria: 3 euro; bazkaria: 15 euro; afaria: 15 euro; ostatua: 40 euro.

Joan-etorrietako gastuak: Zentroko titularrak langileari zerbitzua langilearen beraren autoz erabilita egiteko eskatuz gero, kilometroko 0,20 euro emango zaizkio, autobideko ordainsaria eta aparkalekua ere ordainduko zaizkio, justifikatu ondoren.

Zuzendaritza eta langileen arteko akordio bidez, enpresa bakoitzean beste formula batzuk hitzartu daitezke konpentsaziorako.

Dena dela, dietak eta kilometroen zenbatekoa urtero igoko dira, 2007an eta 2008an, aurreko urteko KPIk izandako hazkundearen arabera.

Art. 27. Lansari-igoera.

Hitzarmeneko soldatak:

Hitzarmeneko soldatak I. Eranskineko Soldaten Taulan ezarritakoak dira. Horiek egiteko, enpresen errealitateak hartu dira kontuan eta soldaten lau taula egin dira 2005ean soldata erreala taula bakoitzean ezarritako erreferentziazko soldata baino txikiagoa izatearen arabera.

Enpresek soldata kontzeptuak taula horietara egokituko dituzte, Hitzarmen honetan aipatu gabeko plusak edo osagarriak edo hemen aipatutakoak ez bezalakoak irentsi eta konpentsatu egingo dituzte.

Soldata-taulak ezartzeagatik ez da inondik inora langileen soldata erreala aurreko urteko KPI baino gutxiago igoko.

Soldata erreala:

Urteko lansari gordin guztiek osatzen dute soldata erreala da; lansari horiek ohiko lanaldian jasotzen direnak izango dira, antzintasun plusa, gauetakoa, igandeetako edo jaiegunetakoa kontuan izan gabe, ezta izaera ez finkagarriarekin hitzartutako osagarriak ere.

Soldata errealak handitzea:

2005eko soldata errealak handituko dira, 2005eko urtarrilaren 1etik eraginarekin, 2004an jasotakoei 2004ko KPIa erantsita.

2006: 2006ko soldata errealek izango duten igoerari dagokionez, 2005eko soldata errealei 2005eko KPIa erantsiko zaie.

2007: 2007ko soldata errealen kasuan, 2006ko soldata errealei 2006ko KPIa erantsiko zaie.

2008: 2008ko soldata errealen kasuan, 2007ko soldata errealei 2007ko KPIa erantsiko zaie.

VI. KAPITULUA

LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA ESZEDENTZIAK

28. art. Ordaindutako lizentziak.

Langileek, ahal denean aurrez adierazita eta behar bezala justifikatuta, ordaindutako lizentziak izateko baimena izango dute eta artikulua honetan ezarritakoaren arabera gozatuko eta abonatuko dira.

Era berean, baldintza berdinetan, langileek adieraziko diren ordaindu gabeko lizentziak izango dituzte.

Lizentziak guztiak hori eragin duen gertakizuna gertatu denean erabili beharko dira.

Enpresek lizentziak emango dituzte ondorengo kasuetan, justifikatu egiten baldin badira. Ordaindutako lizentzia guztiak dagokion karteldegiaeren arabera abonatuko dira.

a) Ezkontzagatik: 18 naturaleko ordaindutako lizentzia, gehienaz ere beste 10 egun natural gehiago har daitezke, baina horiek ez lirateke ordainduak izango.

Lizentzia hori ezingo da irentsi osorik edo zati batean oporraldian gertatuz gero.

b) Emazteak haurra izateagatik: 3 egun, ordaindutako beste 3 egun gehiago luza daiteke, erditzea zesarea bidez izan bada.

c) Gaixotasun larriagatik:

1) Ezkontidearen edo seme-alaben edo langilearekin bizi diren gurasoen kasuan: Ordaindutako 3 egun natural, ordaindu gabeko beste 3 hiru egun gehiago ere har daitezkeela.

Atal honetan aipaturiko sendikoen kasuan, gaixotasun larria izango da ospitalizatuta egon eta gaua bertan igaro behar izatea, baita etxean bertan baldin badago ere. Kasu horretan lizentzia benetako ospitalizazioaren egunetara mugatzen da.

2) Gurasoen edo anai-arreben kasuan: Ordaindutako 2 egun natural, ordaindu gabeko beste egun bat ere har daitekeela.

3) Biloben, aiton-amonen, ezkon gurasoen edo ezkon seme-alaben kasuan: Ordaindutako egun natural bat, baina senitarteko horiek langilearekin bizi badira 2 egun natural.

